



Ehun ipuin hitz gutxitan

Obra lantzeko proposamen didaktikoa

Liburuaren fitxa



Izenburua: Ehun ipuin hitz gutxitan

Idazlea: Joxantonio Ormazabal

Argitaletxea: Elkar

Argitalpen data: 2010

Orrialde kopurua: 115

Laburpena

Liburu honetan, izenburuak adierazten duen bezala, ehun ipuin labur jasotzen dira. Orrialde erdikoak edo lerro bakar batzuetakoak laburrenak eta bi orrikoak luzeenak. Gai eta estilo oso ezberdineko ipuinak dira, batzuk umorezkoak, beste batzuk heriotzari buruzkoak, ... baina kasu gehienetan irakurlearengan eragina (irribarrea, gogoeta, ...) uzten duten istorioak.

Zergatik irakurri liburua

Liburua oso aberatsa da. Ez bakarrik tratatzen dituen gaiengatik edo idazlearen estilo fin eta landuagatik. Irakurtzeko ohitura ez duten pertsonentzat oso aproposa izan daiteke istorio oso laburrak direlako, pilulak bezala har daitezke, apurka... eta irakurleek ere antzera egin beharko dute.

Liburua narratibazkoa da baina, aurretik aipatutakoa ikusirik, poesia liburu moduan har daiteke. Istorioak autonomoak direlako, independenteak, eta bakoitza irakurri ondoren gelditu eta pentsarazten digunaz gogoeta egiteko aproposa.

Joxantonio Ormazabal, bestalde, oso idazle iaioa da, hizkuntza ederki ezagutzen eta erabiltzen duena. Badu ahozketasunaren ezagutza handia, bai eta bertsolariaren ateraldi eta umorea ere, eta alde horretatik ederki kontrolatzen eta erabiltzen ditu ahozko eta idatzizko erregistroak. Horrek, jakina, kalitatea ematen die liburuko testuei.

Irakurri aurretik

1. Jarduera.

Helburua.

- Biografiak idazten ikastea.
- Egileari buruzko informazio bilatzea.
- Irudimena lantzea

Joxantonio Ormazabal da liburu honen egilea. Asmatu gezurretako biografia bat (bost lerro ingurukoa) eta bertan sartu behar dituzue honako hitz hauek: *Jamaika, marinela eta zartagina*. Ondoren, bila ezazue Joxantonio Ormazabalen benetako biografia eta osatu “*Astoa ikusi nuen*”, *Irakasle* eta *TEO* erabiliz.

Oharra:

Joxantonio Ormazabali buruzko informazioa lortzeko begira dezakezue hemen:

<https://www.galtzagorri.eus/eu/profesionalak/idazleak/joxan-ormazabal-berasategi>

https://eu.wikipedia.org/wiki/Joxantonio_Ormazabal

2. Jarduera

Helburua.

- Idazketa eta irudimena bultzatzea.

Liburuaren izenburuko hitzekin jolastu.

Liburuak EHUN IPUIN HITZ GUTXITAN du izenburu baina izan zitekeen EHUN HITZ IPUIN GUTXITAN edo IPUINAK EHUNTZEN HITZ GUTXITAN edo ... zein aukeratuko zenukete zuek liburuko izenburu moduan? Zergatik?

Dakizuen bezala liburuaren izenburua EHUN IPUIN HITZ GUTXITAN da. Nola esango zenukete zuek ideia hori beste modu batean? Egileak izenburu hori aukeratu du eta ez beste bat sinpleagoa eta argiagoa... MIKRO-IPUINAK edo IPUIN LABURRAK zein izenburu gustatzen zaizue gehiago, zergatik?

Ezagutzen, gogoratzen al duzue ipuin laburren bat? Mikro-ipuinen bat?

Oharra:

Mikro-ipuinen adibideak bilatzeko honako iturrietara jo daiteke:

Euskokultur fundazioak eta Pamiela argitaletxeak urtero egiten dute Mikro-ipuinen lehiaketa eta ondoren argitaratu.

Herri literaturan ere badira ipuin errepikakorrak edo kate moduan egindako ipuin laburrak (Etxaniz, X. 2009, *Puntan punta bat*, Pamiela).

3. Jarduera

Helburua.

- Sloganak asmatzea.
- Ideiak sintetizatzea.

Azala eta kontrazala ikusita asmatu liburua irakurtzeko kanpainaren leloa. Egizue esaldi bat liburua irakurtzera animatzen zuen ikaskideak.

Irakurri bitartean

Liburuan zehar mota eta estilo oso ezberdineko ipuinak daude. Hemen, horietako batzuk eredu moduan hartuta, hainbat jarduera proposatzen dira. Egokiena ipuin guztiak irakurtzea litzateke, eta jarduera hauek egin edo hauek eredu gisa hartuta beste batzuk ere gehitzea. Hori, beti, taldearen, denboraren eta bakoitzaren irudimenaren arabera.

1. Jarduera.

Helburua.

- Irakurketa lantzea.
- Eztabaida eta gogoeta, tertulia, bultzatzea

Liburuko lehen ipuinak, "Trena" izeneko ozenki irakurri eta ondoren eztabaida planteatu gelan: .

*-Idazleak trenaz ari da baina, zuen ustez, zertaz ari da?
-Pertsonen askatasuna egoera askok eta baldintza askok mugatzen dute. Zer beharko zenukete libreago izateko?
-Libertatea zertarako? Askatasunak esijentzia eskatzen du? Ardurak?*

2. Jarduera.

Helburua.

- Idazkera lantzea.
- Irakurketa kontzientea bultzatzea

15. eta 16. ipuinetako testuak tartekatu ditugu. Honela: .

Bazen itsu bat (...) amets polit eta luzeak egiten zituen gauera. (16.)
Zakurren zaunka hotsa entzuten zen (...) fiuit... fiuit...(15.)
Amets haietan jendea ikusten zuen, (...) gaueko ametsetan. (16.)
Gizon bat ere ikusi nuen zakurraren atzetik. (...) ez nion ondo ikusten. (15.)
Hau guztia jakinda,(...) noiz helduko zain. (16.)

Egingo al zenukete antzeko zerbait beste ipuin batekin? Edo, bestela, hartu ipuin bat eta luzatu zuen ekarpenak eginez. Esaterakoa 8. Ipuinean “Goiz euritsu batean irratiak albiste hau eman zuen (ozenki eta entzule guztiak harritzeko moduan) ...

Gelakoei kontatu, ondoren, zuek “sortutako” ipuin berria ea gustatzen zaien ikusteko.

3 Jarduera.

Helburua.

- Bilaketa bibliografikoa bultzatzea
- Herri ipuinen inguruko tertulia

15. ipuinean Mateo Txistu izeneko ipuin herrikoia aipatzen da. Bila ezazue ipuin horren bertsioa eta ondoren ozenki irakurri gelan.

Ezagutzen al dituzue beste herri ipuin batzuk? Komentatu gelakoen artean eta egin ezazue zuen gustukoaren zerrenda bat.

4 Jarduera.

Helburua.

Irudimena, plagioa eta idazketa lantzea

14. ipuinean, “Loreak” izenekoan istorio berriak sortu daitezke hitz bakarren bat aldatuta. Esaterako, zer aterako litzaizueke LOREAK jarri beharrean TXORIAK idatziko bazenute. Edo LAGUNAK?

Bururutzen al zaizue besteren bat? Zein?

5. Jarduera

Helburua.

Irudimena eta mintzamina lantzea

33. ipuinean, “eguzkia” izenekoan, amonak dio eguzkia gauero joaten dela ura edatera eta hurrengo goizean datorrela berriro. Baina, esan, zer egiten du ilargiak? Azaldu ahoz ilargiak zer egiten duen gauero ... eta nola batzuetan desagertzen den.

6. Jarduera

Helburua.

Irudimena, jolasa eta debatea bultzatzea klasean

34. ipuinean, “Zientzialari trebea” izenekoan, zientzialariak ikertzen du inurriek katarrorik ote duten, eta ondoren, euliek negar egiten ote duten.

Asmatu beste ikerketa xebrerik eta ondoren klasekoen artean aukeratu bost irudimentsuenak.

7. Jarduera

Helburua.

Irudimena, jolasa eta debatea bultzatzea.

43. ipuinean, amak dio ingelesez isilik egoten bakarrik dakiela. Eta zuek?, zer musika jotzen dakizue? Eta zer pintura egiten? Txoririk harrapatzen?...

Bururatzen al zaizue aparteko “trebeziaren bat”?

Gelakoen artean komentatu eta hautatu hiru.

8. Jarduera

Helburua.

Idazketa. Igarkizunak asmatzea

54. ipuinak, *Karlos* izenekoak, igarkizuna dirudi. Edo gutxienez honen zati bat: etxe bat eta bi biztanle (arrautza).

Asmatuko al zenukete igarkizunen bat? Horretarako erantzunetik abiatuta hau definitzeko modu “ezkutua” bilatu behar duzue.

Ondoren gelakoen artean aritu ea igartzen dituzuen zuen gelakideen igarkizunak.

Oharra: Igarkizun liburu batzuk daude, gelan hauekin jolasteko egoera aprobetxatuz: Xabier Olasoren *Auskalo!* (Pamiela), *Nik papaita, zuk papaita* (Pamiela), *Xabier Etxanizen Igarkizunak* (Elkar) eta *Zer dela eta zer dela* (Pamiela), adibidez.

Igarkizunak sortzeko, aldiz, bada Txilikuren liburu interesgarri bat: *Lau titiriti, bi tatarata...* (Errenteriako Udalak argitaratua 1995ean)

9. Jarduera

Helburua.

Idazketa eta irudimena lantzea.

Plagioak egiten ikastea idazkera literarioaren bidean

71. ipuina *Txokolatezko eskuak* da. Berridatziko zenukete ipuina baina beste izenburu honekin?

-Txokolatezkoak hankak

-Txiklezko eskuak

-Azukrezko eskuak

10. Jarduera

Helburua.

Gelakoen artean gogoeta egitea

Gure gizarteko arazoei aurre egitea

Liburuan badira hainbat ipuin gai “arazodunak” edo normalean ezkutuan tratatzen direnak ukitzen dituztenak. Esaterako

40. Ipuinean heriotzaren presentziaz hitz egiten da;

55. Ipuinean jokoari buruz

85.ean, esaterako, nortasun zalantzari buruz.

Beste batzuetan umore kutsua ikusten da ipuinetan, esaterako

38. ipuinean diru eskaera gurasoei eta hauen erantzuna,

71. ipuineko txokolatezko eskuak,

Edo irakurlearen gogoeta (burua nekatu, esaten du egileak) bilatzen dutenak:

51. ipuinean planteatzen den arazoa, esaterako.

Bila ezazue honelako gai “ez-ohikoak” tratatzen dituzten ipuinak eta komentatu taldeka. Zer pentsatzen duzue idazleak iradokitzen duenaz? Nola ikusten dituzue kontu hauek? Normalean hauetako gai batzuk, heriotza adibidez, ez da ohikoa literatura lanetan, zergatik uste duzue gertatzen dela hori? Zergatik uste duzue ez dugula gai hauei buruz hitz egiten? Ideiak batu eta ondoren denon artean komentatu.

Irakurri ondoren

1. Jarduera.

Helburua.

Deskribapenak eta balorazioak egitea.

Liburu hau nahiko bitxia da. Ikusi duzuen bezala oso istorio laburrak dira. Komentatu taldeka zer gustatu zaizuen, zer ez, zergatik ... eta, ondoren, saia zaitezte modu labur batean (50 hitz gehienez erabilia, adibidez) liburuaz uste duzuen lagun bati kontatzen.

2. Jarduera

Helburua.

Ahozotasuna eta Herri literatura ezagutzea.

Idazketa eta jolasa lantzea.

27. ipuinean idazleak jolastu egiten du ROBERTO eta HOBETO hitzekin.

Idatzi antzeko istorio eta pasarte laburrak honako hitz bikote hauetako batzuekin:

-Andoni / honi	-Mari / hari	-Xabi / kabi	-Belen / hemen
-Joan / joan	-Augustu/ gustu	-Igor / hor	-Naiara / hara
-Nikolas / jolas	-Patxi / itxi	-Bixente / tente	-Antolin / arin
-Joakin / jakin	-Anton / on	-Jose / gose	-Manes / ez

3. Jarduera

Helburuak.

Sintesia. Laburpena egitea.

Ideiak hitz gutxitan biltzea.

Orain liburua ezagutzen duzu. Asmatu beste izenburu bat eta egin slogan bat liburua "promozionatzeko", honen irakurketa bultzatzeko. Nahi izanez gero, kartel bat egin dezakezu!

3. Jarduera

Helburuak.

Irizpide kritikoa garatzea

Debatea bultzatzea

ztertzu.

Ondoren, taldeka bildu eta zuon artean egin aukeraketa. Zergatik hiru horiek bai eta beste hirurak ez?

4. Jarduera

Helburuak.

Narraziotik komikira pasatzea.

Liburuan ageri diren ipuin batzuk egokiak dira komiki moduan kontatzeko. 57. Ipuina, “Astoa Everesten”, oso egokia izan daiteke.

Egingo al zenukete ipuin horren (edo zuek gustukoa duzuen beste baten) kontaketa komiki moduan?

5. Jarduera

Helburuak.

Narraziotik txistera pasatzea

Kontakizunak irakurtzeko daude, baina txisteak berriz ozenki kontatzeko izan ohi dira. Testu labur, zuzenak, elkarriketak pisu handia duela... kontatuko al zenuke txiste moduan 18. Ipuina (Ama onegia)?

6. Jarduera

Helburuak.

Irudimena lantzea, kontatzeko beste teknikak erabiltzea

-Liburuko ipuin batzuk aproposak izan daitezke Stop motion teknika erabiliz kontatzeko. 71. Ipuina (Txokolatzeko eskuak) adibidez, kontatu ahal duzue teknika horren bidez?

-Beste hainbeste esan dezakegu ilustrazioak duen garrantziaz kontakizuna osatzeko orduan. Konturatuko zineten ipuin askotan irudiak ageri direla baina beste askotan ez. Egin ezazue txapelketa bat taldeka. Talde bakoitzak ilustraziorik ez duen ipuin bat hartu eta hura ilustratu behar du, ondoren gelakideei erakutsi eta irabazlea izango da ikaskide gehienek ezagutu duten ilustrazio-ipuina erlazioa.

-Eta zer esanik antzerkiari buruz? Joxantonio Ormazabalen ipuin asko oso laburrak dira eta ez oso aproposak antzezlan egiteko, baina badira batzuk molda daitezkeenak. 86. Ipuina (Zaldiaren bila) da horietako bat, gainera, istorioa luzatzeko eta pertsonaia gehiago sartzeko molda dezakezue eta etxeoak zaldiaren bila ari diren bitartean abenturaren bat sartu. Egingo al zenukete?



Lan hau [Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa lizentzia](#) baten mende dago.

Honakoak egin ditzakezu:

- Partekatu — partekatu, kopia eta birbanatu edozein bitarteko edo formatutan.
- Moldatu — nahasi, eraldatu eta horretan oinarrituz sortu edozein xedetarako, baita merkataritza-xedetarako ere.

Honako baldintzen arabera:

- Aitortu — Aitortza egokia egin behar duzu, lizentziaren esteka eman behar duzu eta aldaketak egin diren adierazi behar duzu. Zentzuzko edozein modutan egin dezakezu hori, baina ez duzu aditzera eman behar lizentzia-emaileak zu edo zure erabilera onesten duenik.
- PartekatuBerdin — Materiala nahasten, eraldatzen eta horretan oinarrituz sortzen baduzu, jatorrizkoaren lizentzia berarekin banatu beharko dituzu zure ekarpenak.